

## **7. DIAGNOSTIKOAREN SINTESIA ETA ONDORIOAK**



## 7.1. SARRERA

### Munduan goranzko joera duen sektore garrantzitsua

- Turismo-sektorea funtsezko bihurtu da munduan, fakturazio- eta enplegu-kopuruak kontuan hartuta. 2004an, 740 milioi nazioarteko turista izan dira munduan (horietatik 53,6 milioik Europa hartu dute helmugatzat); era berean, turismoa batez beste %3,5 igo da urtean, 1990etik aurrera, eta 67 milioi zuzeneko enplegu baino gehiago dagozkio (munduko enpleguaren %2,6). Horrez gain, esportazio-jarduera nagusietako bat da; hain zuzen ere, ondasunen eta zerbitzuen guztizko esportazioen %9ko diru-sarrerak eragin zituen 2001ean (automozioaren sektoreko guztizko esportazioen antzeko zenbatekoa).
- Hainbat faktoreren baitan dago turismoa: batetik, aktibo edo erakarpen-faktore jakin batzuk (naturabaliabideak, ondarea, ekitaldiak, bizi-baldintzak, etab.), askotariko motibazioak eraginpean hartzen dituztenak (aisiaz gozatzea, negozioa kudeatzea, etab.), eta, bestetik, ekipamendu eta zerbitzu egoien azpiegitura (alajamendua, olgeta, jatetxe-arloa, ikaskuntza, komunikazioa, etab.), bezeroarentzat esperientzia atsegina izan dadin.
- Zaila da turismoaren garrantzia neurtzea; izan ere, batetik, sektore horren mugak ez dira zehatzak, eta, bestetik, zeharkako sektorea da eta jarduera-adar ugarritan diharduten enpresak hartzen ditu eraginpean, hain zuzen ere turismo-prozesuan kontsumitzen diren ondasunak eta zerbitzuak ez ezik turismo-jarduerarekin zerikusirik ez duten bestelako ondasunak ere ekoizten dituzten enpresak. Ostalaritzari (alajamendua eta jatetxe-arloa) dagokio turistek egiten duten gastuaren zatirik handiena. Halaber, alajamendu-jarduera da turismoarekin errazen identifikatzen den jarduera; beraz, alajamenduari eta gualdiei buruzko datuak hartzen dira turismoaren bilakaeraren adierazle gisa.

### Turismo-sektorea EAEn: egoera berria

- Euskadiko 2004ko datuek garbi erakusten dute bere historiako aldirik onena bizi duela euskal turismoak. 1997tik aurrera izandako bilakaerak azaleratzen duenez, *erabateko aldaketak* izan dira, nola hedaduran hala motibazioan, eta, beraz, *lehengo kudeaketa-modua alde batera utzita kudeatzeko beste modu bati heldu behar zaio*.
- 1997-2004 aldian, bi fase bereizten dira:
  - 1997-1999 aldian, EAE osoan, baina batez ere Bizkaian eta, zehazki Bilbon eta Bilboko metropoli-ingurunean turisten sarreren eta gualdien kopurua *azkar hazi* zen; Gipuzkoan eta Araban ere hazkuntza handia izan zen, baina mantsoago gauzatu zen.
  - Hazkuntza laster horren ondoren, *sendotze-fasea* izan zen; fase hartan, sarreren eta gualdien kopuruaren hazkuntza egonkortu zen, eta 2004an berriz ere gora egin zuen.
- Aurreko etapako joera aldatzeak, era berean, bestelako aldaketa bat ere azaleratu du: turistaren tipologia ere aldatu egin da pixkanaka; izan ere, lehen lana zen bidaiatzeko motibazio nagusia, eta orain, berriz, aisia.
- Turisten sarreraren hazkuntza handiak, berriz, alajamendu-plazen kopurua nabarmen igo da (%31,8 1999-2004 aldian), sortutako aurreikuspenak direla-eta; gualdien kopurua, berriz, askoz ere gutxiago igo zen (%17,7 igo ziren hoteletako sarrerak aldi hartan, eta batez besteko egonaldian ez zen aldaketa nabarmenik izan). Horren ondorioz, okupazio-mailak behera egin du.
- Sistema eskaeraren tipologia berri horren premietara egokitzea erronka garrantzitsua da, turismo-kudeaketaren ikuspuntutik. Hona hemen erronka horretarako egokiak izan daitezkeen hainbat erantzun: baliabideen artikulazioa eta ad hoc sortutako produktuak, produktu horiek eskaeraren segmentuen arabera merkaturatzeko.

## 7.2. EAEko TURISMO-SEKTOREAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### Magnitude nagusiak

- Ez da erraza EAEko *bisitarien* guztizko kopurua zehaztea. Lehen taldea alojamendu-establezimendu publikoetan (hotel-establezimenduak, landa-turismoko establezimenduak eta kanpinak) *ostatu hartu duten turistek* osatzen dute, eta horien datuak oso zehatzak dira. 2004an, talde horretako 2 milioi lagun baino gehiago izan dira gurean (2003an, berriz, 1,8 milioi). Horixe da sektorearen martxa ebaluatzeko erreferentziatzeko kopurura.
- Hala ere, badira jende ugari biltzen duten bestelako kolektiboak; oso garrantzitsuak dira eta inkesten bitartez lortzen dira haiei buruzko datuak: Alde batetik, *bigarren etxebizitzetan* (etxebizitza propioak edo alokairukoak, senitartekoenak edo lagunena) eta bestelako alojamenduetan segidako hiru guttan baino gehiagotan *ostatu hartu dutenak*. 2003an, 1,1 milioi lagun izan ziren egoera horretan. Lehenengo taldekoekin batera, *egiazko turistek* taldea osatzen dute.
- Hirugarren taldea bigarren bizileku propioetan egonaldi laburrak (segidako lau gau baino gutxiago) egiten dituztenak biltzen dira. Talde horretan 2,1 milioi lagun biltzen dira, eta ez dira turistatzat hartzen, estatistika-ondorioetarako. Guztira, beraz, esan daiteke 5 milioi bidaiarik baino gehiagok ematen dutela gaua EAEn.
- Azkenik, kopuru horiei *txangozaleen* kopurua gehitu behar zaie, hau da, EAEn gaua ematen ez dutenena. txangozaleei dagokienez, ongi neurtuta dagoen kopuru bakarra atzerriko txangozaleena da: 7.211.909 txangozale 2004an. Estatuko beste eskualde batzuetatik etorritakoekin batera (oraindik ere ez dira behar bezala neurtu), fenomeno garrantzitsua dira, ekonomiari dagokionez.
- Hortaz, dokumentuaren gainerako ataletan adierazletzat alojamendu publikoetako egonaldiak hartu diren arren, ez da ahaztu behar turismoaren fenomenoaren askoz ere zabalagoa dela.

**Turisten eta txangozaleen sarrerak, EAEn, alojamendu motaren eta jatorriaren arabera (2003-2004)**

	EAE	Estatuko gainerako lekuak	Atzeritarrak	GUZTIRA
Hotel-establezimenduak	283.332	966.039	501.063	1.750.434
Landa-turismoa	38.275	41.441	8.360	88.076
Kanpinak		76.414	89.349	165.763
<b>Alojamenduko establezimendu publikoetako sarrerak, guztira (2004)</b>				<b>2.004.273</b>
2. bizilekua	607.151		224.521	831.672
Beste batzuk*	24.687		212.168	236.855
<b>Bestelako alojamenduetako sarrerak, guztira (2003)</b>				<b>1.068.527</b>
<b>TURISTAK, GUZTIRA</b>	<b>2.037.339</b>		<b>1.035.461</b>	<b>3.072.800</b>
Egonaldi laburrak 2. bizilekua (2003)	2.116.724		d.e.	2.116.724
Txangozaleak (2003-2004)	11.344.064	1.467.248	7.211.909	20.023.221
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>16.965.375</b>		<b>8.247.370</b>	<b>25.212.745</b>

*Iturria:* Egileak egina, EUSTAT, Frontur eta Familitur erakundeek emandako datuen arabera.

Estatuko eta Euskadiko txangozaleetasunari buruzko datuak Familiturretik hartu dira eta baliteke oso fidagarriak ez izatea.

\* Beste batzuk: senitartekoen edo lagunena etxebizitzak, etab.


Atzerriko turismoari buruzko datua 2004koa da.

- EUSTATen Satellite Kontuaren datuen arabera, BPGan izan duen eragina %5,2koa izan da 2004an, eta fakturazio gehitua, berriz, 2.786 milioi eurokoa 2004an. Logikoaenez, datu horiek Estatu osoko turismoari buruzkoak baino askoz ere txikiagoak dira (BPGaren %11 2004an; kopururik handiena 2001ean izan zen: %12,1). Estatuan, eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoa da nagusi. Euskal turismoaren faktura Estatu espainoleko guztizkoaren %2,5en ingurukoa da.

### EAEko turismo-eskaera

- Termino kuantitatiboetan, bilakaera *positiboa* da, ezbairik gabe. Honako datu hauek garbi erakusten dute aipaturakoa:
  - Hotel-establezimenduetan turisten sarrerak izugarri *hazi dira* 1997-2004 aldian: %60, hain zuzen ere; gaudien kopurua, berriz, gutxixeago *hazi da* (%58). Urteko batez besteko hazkuntza %10,4koa da.
  - Gainera, hazkuntza hori *etengabea* izan da: 2004an izandako hazkuntzak aipaturiko aldiko batez besteko hazkuntzak baino handiagoak dira (Arabak izan ezik), bai sarrerei dagokienez, baita gaudien kopuruari dagokienez ere.

#### EAEko izandako turista-sarreraren eta gaudien bilakaera Lurralde Historikoen arabera, hotel-establezimenduei dagokienez (1994-2004) (1994=100)




Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

- *Atzerriko turismoa* azkarrago igo da (%69). 2004an, establezimendu publikoetan ostatu hartutako turisten %28,6 atzerritarrek izan dira, eta hiriburuetan barnealdean baino turista gehiago izan dira.
- Eskaera horren zati bat alojamendu mota berrietara joaten da, hala nola *nekazaritza-turismoko* instalazioetara (2004an, turisten %4,4k aukeratu du alojamendu hori). Bestalde, *kanpinek* turisten %8,3 erakarri zuten. Gaudiei dagokienez, bi turista mota horiek gaudien %20,78 egin dute (2004an). Hotel-establezimenduen kasuan bezala, landa-turismoko bestelako tipologia horietako eta kanpinetako sarreraren ehuneko-igoera handia nabarmendu behar da (%55,7 1998-2004 aldian eta %87,7 1997-2004 aldian, hurrenez hurren).
- Dokumentu honen sarreran aditzera emanenez, euskal turismoaren azken urteotako bilakaerak *bi etapa* izan ditu, EAEko hotel-establezimenduetako sarreraren eta gaudien bilakaera kontuan izanik:
  - *A fasea*: 1997-1999 aldia; aldi horretan, bisitarien eta gaudien igoera oso handia izan zen (%35,8 eta %33,9, hurrenez hurren).

- B fasea: 1999-2004 aldia; aldi horrek, berriz, bi azpialdi ditu: hasieran atzeraldia izan zen, eta, ondoren, hobekuntza nabarmena:
  - Euskadiko sarrerek eta gaualdiek behera egin zuten 1999-2001 aldian:
    - 1999-2000: (–1,3 eta –1,8 hurrenez hurren).
    - 2000-2001: (–%5,5 eta –%3,5).
  - Hobekuntza eta goranzko joera Euskadin 2001-2004 aldian:
    - 2001-2002: (+%9 eta +%8).
    - 2002-2004: (+%15,7 eta +%15,5).

Hotel-jarduerak lurralde-eremu guztietan (hiriburuak, kostaldea eta barnealdea) gora egin zuen arren, *hazkuntza handiagoa* da Bizkaian; izan ere, hoteletan izandako turisten kopururik handiena lortu zuen 2004an, lehen aldiz, *Bilbok* aisiagatikoa turista berria erakartzea lortzearen ondorioz.

**Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak, jatorriaren arabera (1994-2004) (1994=100)**



Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**EAEn izandako turista-sarrerak, alojamendu motaren arabera (1997-2004)**

	1997	1998	1999	2003	2004	Aldak. % 97-99	Aldak. % 99-04	Aldak. % 97-04
Hotelak	1.095.002	1.393.140	1.486.844	1.585.221	1.750.434	35,8	17,7	59,9
Landa-turismoa*	d.e.	56.561	57.831	84.691	88.076	—	52,3	55,7
Kanpinak	88.323	112.273	140.226	169.346	165.763	58,8	18,2	87,7
<b>Guztira</b>	<b>1.183.325</b>	<b>1.561.974</b>	<b>1.684.901</b>	<b>1.839.258</b>	<b>2.004.273</b>	<b>42,4</b>	<b>19,0</b>	<b>69,4</b>

Iturria: Egileak egina, EUSTATen eta INERen datuen ARABEra.

\* Landa-turismoko alojamenduen 97-04 aldiko aldaketa 98-04 aldiari dagokio.

**Turistek EAEn egindako gaualdiak, alojamendu motaren arabera  
(1997-2004)**

	1997	1998	1999	2003	2004	Aldak. % 97-99	Aldak. % 99-04	Aldak. % 97-04
Hotelak	2.076.679	2.571.605	2.636.110	2.963.193	3.289.658	26,9	24,8	58,4
Landa-turismoa*	d.e.	134.788	157.946	225.249	261.906	—	65,8	94,3
Kanpinak	253.628	283.864	420.400	453.904	451.624	65,8	7,4	78,1
<b>Guztira</b>	<b>2.330.307</b>	<b>2.990.257</b>	<b>3.214.456</b>	<b>3.642.346</b>	<b>4.003.188</b>	<b>37,9</b>	<b>24,5</b>	<b>71,8</b>

*Iturria:* Egileak egina, EUSTATen eta INEren datuen ARABERA.


\* Landa-turismoko alojamenduen 97-04 aldiko aldaketa 98-04 aldiari dagokio.

**Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak eta gaualdiak  
(1997-2004)**

	1997	1999	2004	Aldak. (97-99)	Aldak. (99-04)	Aldak. (97-04)	2004ko kuota (%)	Eskaer. hazktz. ekarp. (%)
<b>Sarrerak</b>								
Araba	202.556	239.765	288.945	18,4	20,5	42,6	16,5	13,2
Bizkaia	375.460	584.207	739.685	55,6	26,6	97,0	42,3	55,6
Gipuzkoa	516.986	662.912	721.804	28,2	8,9	39,6	41,2	31,2
EAE	1.095.002	1.486.884	1.750.434	35,8	17,7	59,9	100,0	100,0
<b>Gaualdiak</b>								
Araba	351.784	415.652	493.110	18,2	18,6	40,2	15,0	11,7
Bizkaia	708.013	1.086.852	1.392.439	53,5	28,1	96,7	42,3	56,4
Gipuzkoa	1.016.882	1.277.931	1.404.109	25,7	9,9	38,1	42,7	31,9
EAE	2.076.679	2.780.435	3.289.658	33,9	18,3	58,4	100,0	100,0


*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**EAEko gaualdiak, alojamendu motaren arabera (%)  
(1997-2004)**



*Iturria:* Egileak egina, EUSTATen eta INEren datuen arabera.

**EAEan izandako turista-sarrerak, alojamendu motaren arabera (%) (1998-2004)**



Iturria: Egileak egina, EUSTATen eta INEren datuen arabera.

- Izan ere, lurralde-ikuspegia kontuan hartuta, bilakaera horrek *hainbat portaera* izan ditu: 1997-1999 aldian Bizkaian batik bat eta zehazki Bilbon eta Bilboko metropoli-ingurunean turisten sarrerak eta gaudiek azkar egin zuten gora. 2000tik aurrera, sendotze-fase bat izan zen, gorabeherekin, eta 2004an, hazkuntza handia izan zen berriz ere.
- Egia esan, turismo-jarduerak *gora egin du eremu geografiko guztietan*; ez, ordea, indar berarekin: Izan ere, Bilboko, Gasteizko eta barnealdeko herrietako eskaera turistikoaren kuota areagotu egin zen (%29,6, %11,6 eta %24,8, hurrenez hurren, 2004an); Donostiakoak eta kostaldeko herrietakoak, berriz, behera egin zuten (%22,9 eta %11,1 hurrenez hurren). Hortaz, *eremu geografikoari dagokio*nez, jarduera *birbanatu* egin da.

**Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak, estratuen arabera (%) (1997-2004)**

		1997	2004	1997 (s/guztizk. gain.)	2004 (s/guztizk. gain.)
<b>Araba</b>	Gasteiz	117.802	202.581	10,8	11,6
	Barnealdea	84.754	86.364	7,7	4,9
<b>Gipuzkoa</b>	Donostia	296.317	400.811	27,1	22,9
	Itsasbazterra	102.374	121.690	9,3	7,0
	Barnealdea	118.295	199.303	10,8	11,4
<b>Bizkaia</b>	Bilbo	288.884	518.294	26,4	29,6
	Itsasbazterra	43.168	73.403	3,9	4,2
	Barnealdea	43.408	147.988	4,0	8,5
<b>Hiriburua, guztira</b>		703.003	1.121.686	64,2	64,1
<b>Itsasbazterra, guztira</b>		145.542	195.093	13,3	11,1
<b>Barnealdea, guztira</b>		246.457	433.655	22,5	24,8


Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzailei buruzko Inkesta.

- Kostaldea eta barnealdea estratuen hazkuntza ere ez da homogenea izan*. Izan ere, Gipuzkoako kostaldeak bilakaera ziklikoa du, hau da, gorakadak eta atzeraldiak ditu; Bizkaiko kostaldeak, berriz, hazkuntza uniformeagoa izan du. Bestalde, barnealdeko estratua Gipuzkoan eta Bizkaian hazi da




(bigarren kasuan, metropoli-inguruneari oso lotuta); Araban, berriz, barnealdeko herriek gainbehera izan zuten hasieran eta hobekuntza txikia geroago.


### Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak eta gaualdiak. Hiriburuak (1997-2004)



### Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak eta gaualdiak. Kostaldea (1997-2004)



### Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarrerak eta gaualdiak. Barnealdea (1997-2004)



Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.


- Bilakaera horrek guztiz aldatu du egoera aurreko aldiarekin konparatuta, nola termino kuantitatiboetan hala kualitatiboetan (ezaugarriak eta motibazioa); beraz, etorkizunari begira, turismo-kudeaketak erronka garrantzitsua du; izan ere, egungo turismo-sistema eskaera-tipologia berrira egokitu beharko du.

- Hala ere, turismo-fluxuen hazkuntza ez da Euskadin soilik gertatu: *Laurogeita hamarreko hamarkadan*, nazioarteko turismoa *etengabe hazi* da, urtean batez beste %4tik gora hazi ere. Milurteko berriaren (2000) hasierako urteetan, ordea, hazkuntza hori moteldu egin zen, egoera ekonomikoaren aldaketaren eta nazioarteko gatazkak areagotzearen ondorioz. Interesagarria da egiaztatzea, txikia den arren, nazioarteko merkatuko *kuota handitu* egin dela; izan ere, Euskadiko hotel-establezimenduetan ostatu hartutako nazioarteko turisten kopurua batez beste %7,3 hazi da urtero.
- INEk Autonomia Erkidego guztietan bilduriko datuekin alderatuta, *Euskadik turista-sarreretan eta gaudietan izan duen bilakaera positiboa ez da hain nabarmena*; izan ere, 1997-2004 aldian turista-sarreretan igoserarik handiena izan duten erkidegoen arteko bederatzigarrenak gara datu horien arabera, eta seigarrenak gaudien hazkuntzari dagokionez. Dena den, kontuan hartuta eskaintzaren tipologia desberdina dela eta 1999 baino lehenagoko datuak fidagarriak ez direla, konparazio hori ez da oso baliagarria. Nolanahi ere, kontuan izan behar da Kantaurialdeko Erkidegoek hazkuntza handiak izan dituztela, natura-turismoa eta familia-oporrak bultzatzen dituen eskaintzari loturik.

### Eskaintza: establezimenduak eta alojamendu-plazak

- Aztertutako aldian (1997-2004), *hotel-eskaintza izugarri areagotu da* (hotel-plazen heren bat baino gehiago —%37— berriak dira 1997-2004 aldian), PIPE 2000-2004 planeko aurreikuspenetan adierazitakoa baino askoz gehiago areagotu ere. Igoera horren zati handi bat *Bilbon* izan da (%22), eskaeraren posizionamenduari erantzuteko. Igoera hori handiagoa da Bilbo metropolitarrak kontuan hartuz gero. Nekazaritza-turismoaren sektorean (establezimendu publikoetako alojamendu guztien %8), plaza-eskaintza bikoiztu egin da (%114 igo da); kanpinetan (guztizkoaren %17), berriz, igoera askoz ere txikiagoa izan da (%16):
  - Hotel-eskaintzaren igoera handiena honako nitxo hauetan izan da: batetik, *5 izarreko nitxoan*; izan ere, 1997an nitxo horretako eskaintza oso mugatua zen eta ia hirukoiztu egin da (%156 igo da); eta bestetik, *izar bakarreko nitxoan*; izan ere, ia bikoiztu egin da (%95).
  - Ikuspuntu agregatuagoa kontuan hartuta, *5, 4 eta 3 izarreko hotelek (1. taldekoak)* izan dute plaza kopuruaren hazkuntzarik handiena; hain zuzen ere, hotel-establezimenduetan eskaintako plaza guztien %34,6 bildu dituzte 2004an.

### Hotel-arloko establezimenduen eta alojamendu-plazaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera (1994-2004) (1994=100)



Iturria: Turismo Administrazioako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.


**EAEko hotel-establezimenduetako alojamendu-plazak, tipologiaren arabera (1997-2004)**

Plazak	1997	2004	Aldak. 97-04	2004ko kuota (%)	Eskaintz. bazktz. ekarp. (%)
Hotelak	12.219	17.120	40,1	48,8	52,9
5 izar	613	1.571	156,3	4,5	10,3
4 izar	4.624	5.864	26,8	16,7	13,4
3 izar	3.751	4.707	25,5	13,4	10,3
2 izar	2.024	2.620	29,4	7,5	6,4
1 izar	1.207	2.358	95,4	6,7	12,4
Hostalak	432	432	0,0	1,2	0,0
Hostal-egoitzak	333	333	0,0	0,9	0,0
Pentsioak	3.008	4.155	38,1	11,8	12,4
Ostatuak	56	56	0,0	0,2	0,0
Apopilo-etxeak	253	253	0,0	0,7	0,0
<b>Hotel-aloj., guztira</b>	<b>16.301</b>	<b>22.349</b>	<b>37,1</b>	<b>63,7</b>	<b>65,3</b>

*Iturria:* Turismo Administrazioiko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

Gainerako kuota eta hazkuntzarako ekarpena honako hauei dagozkie: landa-eskaintzari, kanpinei eta etxebizitza partikularrei.

**Hotel-establezimenduetan izandako turista-sarreraren aldaketa, kategoriaren arabera. Hiriburuak (1997-2004)**



*Iturria:* EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.


1. taldea: 3 izar edo gehiago; 2. taldea: 2 izar edo gutxiago.

### Okupazio-maila

- Plaza-eskaintza handitzearen ondorioz, hotel-establezimenduetako *okupazio-maila* (%46,9) 1998ko *berdina* izan da 2004an; PIPE 2000-2004 planean ezarritako helburua, ordea, neurritz kanpokoa zen: %57.
- Hotel-plazak %9 haztea aurreikusi zuen PIPEk 1998-2003 aldirako. Aldi hartan, eskaintako plazak %22 areagotu ziren.

- Hotel-eskaintza batez ere 2002-2003 biurtekoan hazi denez eta eskaintzaren igoeraren eta eskaera hartzearen artean nolabaiteko denbora-desoreka gertatu dela kontuan izanik (hotel berriek bezero propioak lortu behar dituzte), gainbehera hori ez da harrigarria. Gurearekin aldera daitezkeen beste ingurune batzuetako datuak ikusita, batez beste %50 inguruko okupazio-tasa hartu behar da helburutzat.

**Hotel-establezimenduetako okupazio-mailaren bilakaera, Lurraldean arabera (1997-2004)**



Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Egonaldiaren iraupena eta batez besteko egonaldia**


- Bestalde, aditzera eman beharra dago gehienbat *egonaldi laburrak* direla Euskadiko turismoaren ezaugarria: turisten %50ek ez du bi gau baino gehiago ematen gurean eta %7k soilik egiten ditu hiru astetik gorako egonaldiak (nola barne-turismoaren kasuan —%7,8— hala atzerriko turisten kasuan —%7,0—). Establezimendu publikoetako alojamenduei buruzko datuak soilik kontuan hartuta, batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa da, eta xedezko aldia ez da aldaketa nabarmenik izan. Datu horiek PIPEn ezarritako helburutik beherakoak dira (2,0):
  - Landa-turismoko alojamenduetan eta kanpinetan, batez besteko egonaldiak luzeagoak dira (3,0 eta 2,7 hurrenez hurren, 2004an), baita hotel merkeenetan ere (2. taldekoak), goi-mailakoekin alderatuta (1. taldekoak).
  - Espainia osoan, egonaldirik luzeenak eguzkiari eta hondartzari loturiko turismoa nagusi den lekuetan izaten dira (Balearrak, Kanariak, kostalde mediterranea), baina Kantauri Itsasoko ertzeko gainerako lekuetan ere bai.

**EAEko hotel-establezimenduetako, landa-turismoko establezimenduetako eta kanpinetako batez besteko egonaldiaren bilakaera (1997-2004)**

	Hotelak	Landa-turismoa	Kanpinak
1997	1,90	d.e.	2,87
1998	1,85	2,38	2,53
1999	1,87	2,73	2,93
2000	1,86	2,52	3,00
2001	1,90	2,62	3,00
2002	1,88	2,60	2,98
2003	1,87	2,66	2,78
2004	1,88	2,97	2,72

Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta e INE.

**EAEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldiaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. (1994-2004)**



Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

**Hotel-establezimenduetan izandako batez besteko egonaldia (1997-2004)**

Batez besteko egonaldia	1997	1998	1999	2003	2004	Aldak. % (97-99)	Aldak. % (99-04)	Aldak. % (97-04)
<b>GUZTIRA</b>	<b>4,01</b>	<b>3,90</b>	<b>3,93</b>	<b>3,65</b>	<b>3,52</b>	<b>-1,9</b>	<b>-10,6</b>	<b>-12,2</b>
Andaluzia	3,28	3,26	3,11	3,10	3,09	-5,3	-0,7	-6,0
Aragoi	2,04	2,09	2,15	2,09	2,09	5,3	-2,9	2,2
Asturias	2,16	2,12	2,08	2,27	2,27	-3,7	9,3	5,2
Balearrak	8,99	8,21	8,32	7,25	6,99	-7,4	-16,0	-22,2
Kanariak	8,07	8,02	7,98	7,84	7,57	-1,0	-5,2	-6,2
Kantabria	2,49	2,47	2,39	2,38	2,45	-4,1	2,5	-1,7
Gaztela eta Leon	1,53	1,55	1,63	1,72	1,67	6,5	2,7	9,3
Gaztela-Mantxa	1,57	1,51	1,53	1,68	1,69	-2,4	10,7	8,1
Katalunia	3,76	3,74	3,59	3,43	3,30	-4,7	-8,0	-12,4
Valentzia	4,97	4,92	4,48	3,82	3,75	-9,8	-16,4	-24,6
Extremadura	1,57	1,56	1,55	1,73	1,75	-1,8	13,1	11,1
Galizia	2,23	2,24	2,30	2,12	2,14	3,1	-6,8	-3,9
Madril	1,94	1,96	2,15	2,13	2,08	11,1	-3,7	7,0
Mutzcia	3,58	3,59	3,31	3,01	2,82	-7,5	-15,0	-21,4
Nafarroa	1,82	1,84	1,71	1,97	1,96	-6,1	14,6	7,7
<b>Euskadi</b>	<b>1,86</b>	<b>1,83</b>	<b>1,89</b>	<b>1,92</b>	<b>1,90</b>	<b>1,8</b>	<b>0,7</b>	<b>2,5</b>
Errioxa	1,84	1,83	1,79	1,84	1,85	-2,6	3,8	1,1
Ceuta eta Melilla	2,03	2,15	2,97	2,16	2,27	46,3	-23,6	11,8

Iturria: INE. Hotel Okupazioari buruzko Inkesta.

- Zaila da batez besteko egonaldia luzatzea, hazkuntza zer turismo-segmentutan gertatzen den ikusita: Kultura- eta hiri-turismoan eta negozioei lotutako turismoan (kongresuei lotutako turismoko batez besteko egonaldia 2,46 egunekoa izan da 2004an). Betiere egonaldia luzatzea lortze aldera turismo-

eskaintza hobetzeko eta integratzeko lanari utzi gabe, egonaldia luzatzeko helburua epe ertain-luzeagoko helburua da, turista gehiago erakartzeko eta hotel-okupazioa areagotzeko helburuarekin alderatuta.

- Alojamentuaren kudeaketa eta azpiegitura merkatzea lortzen bada (familia-paketeak, 2. taldeko eskaintza areagotzea, gazteentzako alojamentuak, etab.), errazagoa izango da egonaldia luzatzea, ez bairik gabe. Oporretako familia-turismoa ez da behar bezala zaintzen Euskadin.

## Turisten jatorria

- Euskadirentzat, honako hauek dira *merkatu igorle* nagusiak (hotel-establezimenduetan izaten diren turista-sarrerak), ordena honetan: Madril (%16,7), Katalunia (%13,1), Frantzia (%6,3), Britainia Handia (%4,8) eta Gaztela eta Leon (%4,1). Hotel-erregistroen %45 eragin dute 2004an. Merkatu igorleen kuotan, honako hauek daude aipatutakoen atzetik: Valentzia (%3,1) eta Alemania (%2,8).
- Aurreneko bost merkatuak, halaber, 1997-2004 aldian izandako turismo-fluxuen hazkuntzaren eragile nagusiak dira (hotel-establezimenduetan ostatu hartutako turisten hazkuntzaren %44,3). Horien ondoren, eta garrantziaren arabera, Italia (%3,5) eta AEB-Kanada (%2,5) daude.
- *Barne-turismoa*, hala ere, oso merkatu garrantzitsua da; izan ere, gurean ostatu hartutako turisten %16,2 EAEkoak dira. Gainera, hori da 1997-2004 aldian gehien areagotu den segmentua (%83,1), estatuko turismoa (%50,1) eta atzerriko turismoa (%69) baino gehiago, hain zuzen ere. Termino absolutuetan, hala ere, honako hauek dira gehien hazi diren turista kopuruak: Estatuko gainerako lekuetakoak (%49,2); ondoren, atzerrikoak (%31,2); eta, azkenik, EAEkoak (%19,6).

**Hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien jatorri nagusien bilakaera.  
EAE (1997-2004)**

	1997	1999	2004	Aldak. 97-04	2004ko kuota (%)	Eskaer. hazktz. ekarp. (%)
<b>Sarrerak, guztira</b>	<b>1.095.002</b>	<b>1.486.884</b>	<b>1.750.434</b>	<b>59,9</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Euskadi</b>	<b>154.714</b>	<b>186.891</b>	<b>283.332</b>	<b>83,1</b>	<b>16,2</b>	<b>19,6</b>
<b>Estatuko gainerako lekuak</b>	<b>643.807</b>	<b>879.770</b>	<b>966.039</b>	<b>50,1</b>	<b>55,2</b>	<b>49,2</b>
Gaztela eta Leon	43.063	44.399	71.906	67,0	4,1	4,4
Katalunia	159.384	241.381	228.677	43,5	13,1	10,6
Valentzia	42.160	50.672	54.793	30,0	3,1	1,9
Galizia	32.283	36.486	45.708	41,6	2,6	2,0
Madril	189.877	265.625	292.370	54,0	16,7	15,6
<b>Atzerria</b>	<b>296.481</b>	<b>420.223</b>	<b>501.063</b>	<b>69,0</b>	<b>28,6</b>	<b>31,2</b>
Alemania	38.625	46.521	49.781	28,9	2,8	1,7
Frantzia	61.519	80.819	110.058	78,9	6,3	7,4
Italia	23.276	36.411	46.469	99,6	2,7	3,5
Erresuma Batua	42.307	61.245	83.795	98,1	4,8	6,3
AEB-Kanada	26.012	53.034	42.096	61,8	2,4	2,5

Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzailerei buruzko Inkesta.

- *Nazioarteko turismoak* gehien aukeratzen dituen helmugak, berriz, adierazitako bilakaeraren joera orokorren antzekoak dira. Izan ere, *Gipuzkoa* izan da atzerriko turista gehienen *helmuga tradizionala*; baina, *2004an*, *Bizkaia* izan da, *lehen aldiz*, *nazioarteko turisten kuotarik handiena lortu duen lurraldea*. Hain zuzen ere, *Bizkaia* (egia esan, *Bilbok*) *helmuga gisa azken urteotan askoz ere hazkuntza handiagoak izan dituzenez*, bi lurraldeen kopuruak *hurbildu egin dira*: *2004an*, *atzeritarren %42,1*ek hartu dute *Gipuzkoa* helmugatzat, eta *%45,6* *Bizkaia*. Baina *6 urte lehenago*, *horri buruzko ehunekoak honako hauek ziren*: *%54* eta *%29*, *hurrenez hurren*. *Araba atzean gelditu da prozesu horretan*, eta *atzerriko turismoak garrantzi erlatiboa galdu du merkatu horretan*.
- *Garbi dago fenomeno hori ez dela Lurralde batetik bestera hedatzen*; izan ere, *Euskadira etortzen diren turisten %15*ek soilik jotzen du *Lurralde Historiko bat baino gehiagotara*.

#### Hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien jatorri nagusien bilakaera, EAEko Lurraldeen arabera (1997-2004)


	1997			2004			Aldak % 97-04			2004ko kuota (%)			Eskaer. hazktz. ekarp. (%)		
	EAE	Estatua (EAE izan ezik) Atzerria	Atzerria	EAE	Estatua (EAE izan ezik) Atzerria	Atzerria	EAE	Estatua (EAE izan ezik) Atzerria	Atzerria	EAE	Estatua (EAE izan ezik) Atzerria	Atzerria	EAE	Estatua (EAE izan ezik) Atzerria	Atzerria
Araba	43.329	108.814	50.413	64.566	162.835	61.544	49,0	49,6	22,1	22,8	16,9	12,3	16,5	16,8	5,4
Bizkaia	48.551	240.955	85.954	114.856	396.164	228.665	136,6	64,4	166,0	40,5	41,0	45,6	51,6	48,2	69,8
Gipuzkoa	62.834	294.038	160.114	103.910	407.040	210.854	65,4	38,4	31,7	36,7	42,1	42,1	31,9	35,1	24,8

Iturria: EUSTAT, Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta.

#### Turistaren motibazioa eta portaera

- *Azken urteotan*, *EAEra etortzen den turistaren motibazioa* aldatu egin da, *baita turista mota ere*. *Euskal Autonomia Erkidegoko osoan*, *alajamenduko establezimendu publikoetako bezeroaren motibazio nagusia aisia da (%58,4)*; *gainerako %41,6*aren kasuan, *berriz*, *lana eta bestelako motibazioak dira motibazio nagusiak (senitartekoak bisitatzea, osasun-tratamendua, etab.)*.

#### EAEra bidaiatzeko arrazoi nagusia (%). (2004)



Iturria: IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: Alojamentuko establezimendu publikoetan gaua emandako turistak).

**EAera bidaiatzeko arrazoi nagusia (%).**  
**Datu xeheak (2004)**


	<b>GUZTIRA</b>
Lana edo negozioak oro har	34,1
Ferietan parte hartzea	0,6
Kongresuetan, konbentzioetan eta abarretan parte hartzea	1,6
Ikasketak eta bestelako arrazoi akademikoak	0,7
Erosketak eta zerbitzu pertsonalak	0,1
Senitartekoak eta lagunak bisitatzea	3,2
Borondatezko osasun-tratamendua	0,8
Erlijio-arrazoiak, erromesaldiak	0,2
Aisia, olgeta, oporrak	58,4
Beste arrazoi batzuk	0,3

*Iturria:* IBILTUR. Encuesta de Comportamientos y Tipologías Turísticas.

(Oinarria: Establezimendu publikoetan gaua emandako turistak).

- Aisiaren arrazoia da garrantzitsuena (%58,4) alojamenduko establezimendu publikoetan ostatu hartu duten turistentzat; negozioen motibazioak, berriz, garrantzi txikiagoa du (%34,1), baita honako hauek ere: senitartekoei eta lagunei bisita egiteak, eta osasun-tratamenduek eta bestelako arrazoiak. Hirugarren arrazoi multzo horren garrantzia handiagoa da EAEko edo *Estatuko* turisten kasuan, eta aisiaren faktorearen antzekoa da (%49, 2003an). Negozioaren faktorea, berriz, %5 besterik ez da. Garbi dago, beraz, *harreman pertsonalak eta familia-arteak* erakarpen-faktore garrantzitsuak direla, kasu horretan hotel-alojamendurik erabiltzen ez den arren, etxebizitza propioa, alokatua edo lagata erabili arren, alegia.
- Hotel-establezimenduei dagokienez, ordea, alde geografikoak garrantzitsuak dira:
  - Aisia motibazio nagusia da Arabako barnealdean (%79,8) eta Gipuzkoako eremu guztietan: Donostian (%69,0), kostaldeko herrietan (%89,3) eta barnealdean (%55,7). Baita Bizkaiko kostaldean ere (%57,6).
  - Negozio-gaiak, aldiz, arrazoi nagusiak dira Gasteizen (%69,9), Bilbon (%51,7) eta Bizkaiko barnealdeko herrietan (%51,7).

**EAera bidaiatzeko arrazoi nagusia, Lurralde Historikoen arabera (%), 2004**



*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: Alojamen duko establezimendu publikoetan gaua emandako turistak).




**EAEra bidaiatzeko arrazoi nagusiak, Lurralde Historikoen arabera (%)  
(hotel-estabzimenduak)**

2004	EAE				ARABA			GIPUZKOA				BIZKAIA			
	Guz-tira	Hiri-burua	Kos-taldea	Bar-nealdea	Guz-tira	Hiri-burua	Bar-nealdea	Guz-tira	Hiri-burua	Kos-taldea	Bar-nealdea	Guz-tira	Hiri-burua	Kos-taldea	Bar-nealdea
Lana	<b>38,7</b>	43,2	18,8	37,4	51,8	69,9	13,9	22,4	20,2	8,8	36,6	50,2	51,7	35,7	53,5
Feriak eta kongresuak	<b>2,5</b>	2,9	0,2	2,5	2,9	3,3	1,8	3,0	5,3	0,3	0,3	1,8	0,7		5,8
Aisia	<b>53,3</b>	48,4	77,5	53,3	39,3	20,0	79,8	69,3	69,0	89,3	55,7	42,4	42,7	57,6	33,3
Beste batzuk	<b>5,5</b>	5,5	3,5	6,7	6,0	6,8	4,4	5,3	5,5	1,6	7,4	5,6	4,8	6,7	7,4

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

- Aisiaren arrazoa «hiri-turismoari» eta «kultura-turismoari» dago lotuta batez ere. *Itsasoa* osagai garrantzitsua da oraindik ere kostaldean. *Natura-jarduerak* garrantzitsuak dira landa-turismoarentzat; hala ere, landa-turismoarentzat hiri-turismoa da arrazoi nagusia. Natura-turismoa garrantzia dutenen arteko bigarrena da landa-turismoaren kasuan eta garrantzitsuena kanpinetan ostatu hartu duten turistentzat; hala ere, segmentu horretan dauden baliabideekin alderatuta, garrantzi txikia du.
- Euskadi turismo-helmuga gisa berriz ere aukeratzeko, Guggenheim museoa funtsezkoa izan da, baina ez da ikono bakarra izan. Museo horrek ekarri duen erabateko berrikuntzari esker, hirian oso nabarmenak ez ziren bestelako erakargarriak azaleratu ditu; beraz, hasiera batean *Guggenheim efektua* sortu bazen ere, gaur egun *Bilbo efektuaz* hitz egin genezake; izan ere, hiria berritzeko prozesu indartsuak eragin du efektu hori.

**Aisiagatiko bidaietako arrazoi nagusiaren laburpen-agregazioa (%). 2004**



	GUZTIRA	Hotel-establez.	Landa-turismoa	Kanpinak
Eguzkiari eta hondartzari lotutako turismoa	<b>6,9</b>	2,9	9,0	28,4
Landa- eta natura-jarduerak	<b>8,9</b>	2,4	33,1	34,6
Kultura-turismoa	<b>17,0</b>	20,2	5,1	4,5
Hiri-turismoa	<b>48,6</b>	53,9	38,9	23,0
Beste batzuk	<b>18,6</b>	20,5	13,9	9,5

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: Estabzimendu publikoetan gaua emandako turistak).

- *Aireportuak* sarbide garrantzitsua dira (autoarekin alderatuta) *atzerriko turistarentzat* (betiere Frantziako turistak salbuetsita), are gehiago Bilbo eta Britainia Handiko nahiz Alemaniako helmugekin (Loiutik edo Loiura nazioarteko hegaldiak egin zituzten bidaiarien —milioi bat— %70) lotzen duten *kostu txikiko hegaldien* goraldia kontuan izanik. Turisten beste kolektibo batek, berriz, *itsas sarbidea* erabiltzen du; 2004an, 12.180 turista etorri ziren 21 *itsas bidaiatan*; horien artean, erdiak inguru estatubatuarrek ziren eta beste erdiak britainiarrek.
- Ez dirudi, ordea, Penintsula eta Kontinentea *lurreko garraio bidez komunikatzen* dituzten bi ibilbideek iragaite-turismoko fluxu nabarmenak ekartzen dituztenik. Era berean, garbi dago ez dagoela turista horiek erakartzeko sistema espezifikorik (seinaleak, tokiko turismoko bulegoak, alojamenduen sarea).
- *Leialtze-maila* handi samarra da: Alojamentu publikoetan ostatu hartutako *bost turistetatik ia batek* 6 bidaia edo gehiago egin ditu Euskadira azken bost urteotan. «Behin eta berriz» etortzearen arrazoi nagusia lana da, baina arrazoi hori ez da bakarra: gurera behin baino gehiagotan etorritako ia %38 *aisia dela-eta* etortzen da (eta gainerakoak *lanagatik*).
- Jakina, turisten kopurua gehitzea *turista berriak* erakarri izanak eragin du hein handi batean. Izan ere, 2004an gurean ostatu hartutako %40 lehen aldiz etorria zen Euskadira. Gainerakoek, bidaiaren bat egina zuten aldeaz aurretik, bai lanagatik, baita aisiagatik ere, hein berean, gutxi gorabehera.

**Azken 5 urteotan EAera egindako bidaiak guztira (%). 2004**

	GUZTIRA	Hotel-establez.	Landa-turismoa	Kanpinak
Bat ere ez	<b>40,4</b>	39,7	37,3	48,5
1-5 bidaia	<b>39,1</b>	38,8	44,7	38,5
6 bidaia eta gehiago	<b>19,1</b>	20,8	17,6	12,6
Zehaztu gab e	<b>0,6</b>	0,6	0,4	0,4

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

- Hona hemen EAera etortzen diren turisten tipologiaren beste ezaugarri batzuk:
  - EAera etortzen diren bidaiarien artean, *bidaiak prestatuta* (erreserbak egitea, informazioa biltzea, etab.) eta bidaia prestatu gabe etortzen direnen kopurua antzekoa da.
  - Hain zuzen ere, *bidaiak-agentziak* eta *Internet* dira Euskadi helmugari buruzko informazioa lortzeko tresnarik erabilienak. Erreserba formalizatzeari dagokionez, telefonoa da tresnarik erabiliena (%43), eta, ondoren, Bidaia Agentzien bitartekotza (%29,3).
  - EAera datozen turista *gehienak beste norbaitekin* etortzen dira (%80,9); egoera hori aldatu egiten da, erabilitako alojamendu motaren arabera: joera hori txikiagoa da hoteletan ostatu hartu dutenen artean (lan-motibazioa handiagoa da) eta handiagoa da landa-alojamenduetan eta kanpinetan (%96 eta %98,4, hurrenez hurren).
  - Ildo horretan, *bikotekidea* (%34,4) eta *lagunak* (%29,3) izaten dira bidaide nagusiak. Era berean, bidaia gehienetan bi bidaiari izaten dira.
  - Turismo-helmuga gisa, gurera etortzen diren bidaiarien %83,2ren *aurreikuspenak betetzen* ditu EAEk. Iritzirik eman ez dutenak alde batera utzita, soilik bisitarien %5,1en aurreikuspenak zarpuztu dira.

**Bidaiatzeko modu soziala (%). 2004**

	<b>GUZTIRA</b>	<b>Hotel-establez.</b>	<b>Landa-turismoa</b>	<b>Kanpinak</b>
Bakarrik	<b>19,1</b>	21,5	4,0	1,6
Bikotekidearekin	<b>34,4</b>	34,6	37,9	30,3
Familiarekin	<b>12,6</b>	11,1	15,4	26,7
Lagunekin	<b>29,3</b>	28,5	30,9	36,4
Familia eta lagunekin	<b>4,6</b>	4,2	11,8	5,0

*Iturria:* IBILTUR. Turismo Portaerei eta Tipologiei buruzko Inkesta. Turismo Sailburuordetza.

(Oinarria: Establezimendu publikoetan gaua emandako turistak).

- Azkenik, Bisitarien Portaerei eta Tipologiei buruzko 2004ko Inkestan bildu denez, honako hauek dira EAEko turista mota nagusiaren ezaugarriak: hotel-establezimenduetan edo senitartekoen edo lagunak etxean ematen du gaua; Euskadin edo Estatuko erkidegoren batean bizi da, batez ere Madrilen edo Bartzelonan; 30etik 49 urte bitartekoa da; goi-mailako ikasketak eta erdi- edo goi-mailako errenta du, eta bikotekidearekin bidaiatzen du.

**7.3. EPE ERTAINERAKO AUKERAK, ORO HAR**

- Munduko Turismo Erakundeak (MTE) epe ertainerako hainbat *joera* nabarmendu ditu, baita hainbat aldaketa ere turisten portaeran. Horiek guztiek nazioarteko turismoaren bolumena eta tipologia baldintzatzen dute. Hain zuzen ere,
  - *Segurtasun*-eskaerak goranzko joera du, eta, beraz, eskualde barneko bidaia gehiago egiten dira eskualdetik kanpokoak baino.
  - Bidaiariak gero eta helduagoak dira, baita eskarmentu handiagokoak ere. Biztanleria zahartzen ari da, eta, beraz, adin ertain-altukoak (45-60 urte) izango dira bidaiari gehien bilduko dituzten segmentuak, hau da, gaur egun adin ertain-gaztea (35-45) dutenen artean, ohitura eta «kultura turistikoa» dutenak.
  - Prezioen gorakadak eta eskaintzak hobeto ezagutzeak hautemandako balioari buruzko presioa areagotzen dute; izan ere, turista *zorrotzago* bihurtzen da. Horregatik, beharrezkoa da eskaintzaren *kalitatea* modu iraunkorrean hobetuko duten inbertsioak egitea.
  - Baina ez da nahikoa izango azpiegitura onak edukitzea: esperientzia onak eduki behar dira. Turistaren exijentzia-maila handiagoa da alderdi guztietan:
    - Turismo-produktuen kalitatea, inguruko instalazioak eta zerbitzuak kontuan izanik.
    - Kalitatea «ingurunean».
    - Informazio fidagarria, egiazkoa eta kalitatezkoa eskuratzeko aukera.
  - Turismo iraunkorrak gero eta garrantzi handiagoa du eta helmugako *ingurumenaren* arloko alderdiekiko sentsibilitatea gero eta handiagoa da.
  - Turismoaren kudeaketan teknologia berriak txertatzea lehiakortasunerako ezinbesteko faktorea da, baita sektore pribatuaren eta ente publikoen arteko itunak eta lankidetzak estua ere.
  - *Oporraldien kopurua areagotu egin da eta haien iraupena laburtu*; urtean zehar hartzen diren oporren *iraupena desberdina* da. Helmugan jarduerak egiteko joera igo egin da.
  - Gero eta handiagoa da *nork bere bidaia antolatze*ko joera, horretarako *Internet* eta kostu txikiko garrarriobideak eta alojamendua erabilia; joera hori nagusitzen ari zaio bidaia antolatuaren aukerari. Erabakiak «azken unean» hartzen dira, eta, askotan, lortutako informazioak bultzatuta hartzen dira.

- *On line turismo-merkatuak* (%6,9 2006an) gorantz egiteko aukera handiak ditu; Centre for Regional and Tourism Research erakundearen arabera, dagoeneko Europako turismo-industriaren guztizko kopuruaren %4,4 fakturatu du dagoeneko. Espainian merkatu horren salmentak oso gutxi dira; aldiz, Britainia Handian, Alemanian eta Frantzian —Euskadirako merkatu igoerle garrantzitsuak— oso hedatuta dago merkatu hori. Kostu txikiko aire-konpainiek Internet bidez egiten dituzte salmenten %90. Hurrengo urratsa *kostu txikiko aireko lineen eta hotel-sektorearen arteko baterako banaketa-plataformak* garatzea izango da.
- Bidaien pertsonalizazioarekin batera, (helmugan) *autoz* bidaiatzeko joera hazten ari da, bertan joan-etorrian ibiltzeko autonomia izatearren. Halaber, turisten artean gero eta gehiago dira honako hauek: emakume independenteak, seme-alabarik gabeko bikoteak eta familia «berantiarrak», hots, seme-alaba txikiak dituzten bikote helduak.
- *Alojamendu* modalitateak ere dibertsifikatu egin dira, hotel tradizionalak ez *diren formulak* sortu baitira.
- Europako ingurunean, gainera, Europako turismoaren iraunkortasunerako hainbat *erronka* nabarmendu dira:
  - *Eskulan* kualifikaturik eza lanpostu jakin batzuetarako.
  - *Garraioen* bilakaera eta horrek trafiko-fluxuetan duen eragina.
  - Turismoaren garapenak *tokiko bizi-baldintzetan* dituen ondorioak (prezioen igoera, tokiko kultura beste batzuekin nahasteko eta galtzeko arriskua, adierazpide soziokulturalen jatorrasuna galtzea, etab.).
  - Ondare-baliabideen erabilera eskasa eta *ingurumena* babesteko premia.
  - *Helmugetan* aldaketak gertatzeko aukera, *kontsumo-joera* handien ondorioz.
  - Kontzentrazioarako joera eragiteko aukera eta turismo-zerbitzuen integrazio bertikala bultzatzea.
  - *Teknologia berriak* hartzea eta txertatzea, lehiakortasun-faktore gisa.
- Aldaketa horiek merkatu espainolean ere nabari dira, eta, azken urteotan kezka nagusitu den arren, merkatu horrek hazkuntzari eutsi dio. Merkatu heldua da, eta, bertan, eguzkiaren eta hondartzaren segmentua da nagusi; bestalde, honako hauek dira oraindik ere merkatu igoerle nagusiak: Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Italia eta Benelux, ordena horretan betiere; bertan ere nabarmenak dira bidaia antolatuen jaitsieran adierazitako joerak.
- Nazioarteko turismoak mende honetako aurreneko bi hamarkadetan izango duen *bilakaerari buruzko aurreikuspenak* aurreko hamarkadako antzekoak dira, azken lau urteotan unean-unean izan diren gorabeherak gorabehera. Hala ere, eskualde handien arabera, helmuga exotikoak eta gutxien garatuta daudenak haziko dira azkarren. Europari dagokionez, urtean %3ko hazkuntza aurreikusi da batez beste. Hala ere, gastuak egoera ekonomikoaren arabera egiteko joera atzeman da. Dena den, turismoaren guztizko fluxuen zati bat besterik ez da nazioarteko turismoa, eta ez da zati nagusia.
- Bestalde, eguzkiari eta hondartzari loturiko turismoaz gain (kostu txikiagoko merkatuetara bideratzen ari da), turismo-aukera alternatibo eta osagarriak garatzen ari dira eta dagoeneko batez bestekotik gorakoak dira: *litekeena* da *natura-turismoa* edo *ekoturismoa* urtean %12 eta %17 bitarteko batez besteko tasaz handitzea, *kultura-turismoa* %7 eta %12 artean, eta *abenturako turismoa* %10 eta %15 artean.
- Azkenik, aditzera eman beharra dago *merkatu igoerle handiak* sortu direla, epe ertain eta luzean garatuko direnak —txina batez ere—. Beraz, merkatu berri horiei erantzuteko prestatzen hasi behar dugu.

#### 7.4. EAEn AURREIKUS DAITEKEEN ESPARRU-EGOERA

- Turismoaren joera berriak onuragarriak dira Euskadirentzat; izan ere, eskaintza zabala eta konplexua du. Oraindik ere behar bezain artikulatua ez dagoen arren eta behar bezain irisgarria ez den arren, oro har, honako ezaugarri hauek ditu eskaintza horrek: bizi-kalitate jakin baten erakargarria, kultura tradizionalarekiko eta berrikuntza nahiz teknologia aurreratuarekiko lotura hurbila eta zuzeneko eta hiri-erakargarriaren eta natura bizigarriaren konbinazioa. Elementu horiek guztiak ez dira behar adina aprobetxatu oraindik ere elementu kontsumigarri edo turismo-produktu gisa.
- Demografia-joerei dagokienez, turista helduak gero eta gehiago dira, eta horrek lehen adierazitako bilakaera indartzen du, hain zuzen ere oporraldi labur ugarirako bilakaera. Oporraldi horien helburua, atseden hartu ordez, ezagutzea, esperimentatzea eta ongi pasatzea da.
- Euskadirentzat abantaila handia da turistak igortzen dituzten herrialde nagusietatik hurbil egotea (herrialde horiek —Alemania, Britainia Handia, Frantzia, etab.— aukera-merkatuak dira Euskadirentzat), eta Penintsularako bi sarbideetako bat izatea. Beraz, erakarpen-faktore propioez gain, Penintsulan finkatuta dauden beste helmugetaranzko fluxuak erraz aprobetxatzeko aukera du, eguzkiari eta hondartzari lotutako helmuga tradizionaletaranzko eta kultura-helmugetaranzko fluxuak aprobetxatzeko aukera, hain zuzen ere (adib: Done Jakue Bidea). Azkenik, besteak beste Iparralde eta Kantabria udaldi-zonen ondoan egoteak, txangozaleen (gaua bertan ematen ez duten turistak) fluxu handia sortzen du, eta horren eragin ekonomikoa handia da. Informazioa, turismo-seinaleak eta harrera-azpiegiturak funtsezkoak dira kasu askotan errepikatzen diren fluxuak erakartzeko. Merkatu tradizionalak zaintzeaz gain, komenigarria da beste merkatu igorle handiak (Japonia, esaterako) eta epe ertainean garatuko diren merkatu igorleak (txina, esate baterako) hartzeko prestatzen hastea.
- Euskadiko kostaldeko hiriek udaldirako helmuga tradizional eta apartaren tradizioa eta irudia dute —batez ere Donostiak, Hondarribiak eta Zarautzek, baina ez horiek soilik—; hala ere, ez dira Biarritzen mailara iristen. Turistak erakartzeko itsasoak oraindik ere garrantzi handia duen arren, oporretarako jarraibideetan izandako aldaketen ondorioz, udako oporraldiak laburtu egin dira. Konpentsazio gisa, asteburuko eta urtean zeharreko beste aldi laburretako oporren merkatua sortu eta goratzen ari da, itsasoaz gain beste faktore batzuk ardatzat dituen.
- Oporraldi laburren kopurua handitzea interesgarria da, turismo-jardueraren eraginaren urtarokotasuna apurtzeko lagungarria baita. Guri dagokigunez, Euskadik asteburuko turistarentzat duen erakarpenaren oinarriak honako hauek dira: batetik, magnetismo handiko baliabide apartak (Guggenheim, Bilboren hiri-dinamismoa, etab.), eta, bestetik, hain zehatzak ez diren baina multzo bereizgarria osatzen duten elementuen konbinazioa: natura- eta hiri-baliabideak; berrikuntzako eta modernitateko, nahiz tradizioko elementuak; bizi-kalitate handiak ematen dituen atseginak (gastronomia, hirigintza, ekitaldiak, kultura, etab.), etab. Landa-turismoa ere atal horren zati da; izan ere, natura-turismoari loturik dago. Dena den, landa-turismoko alojamenduak erabiltzen dituztenen segmentu txiki baten zat (%9,3) alojamendu modalitate bat besterik ez da landa-turismoa, natura ez baita turista horien motibazio nagusia. Aldi berrirako estrategiak naturako turismoaren garapena aintzat hartzen du; izan ere, segmentu horrekin lotura duten turismo-produktuak sortzeko aukera handia du Euskadik.
- Udaldi- eta aisia-turismoaz gain, *negozioei loturiko turismoa* izan du Euskadik aspaldi honetan, bertako industria- eta zerbitzu-jardueran eta enpresa-oinarri indartsuan oinarritua. Horren inguruan, *bilerei loturiko turismoaren* jarduera garatu da azken urteotan (erakustazokak, eta, orain dela gutxi, Kongresuak eta konbentzioak), ekitaldi horietarako ekipamenduetan inbertsio handiak egin izanari esker.
- Jarduera horiek osatu egin daitezke eta hori *positiboa* da: kongresuei eta bilerei loturiko turismoa pozik egotea lortuz gero, etorkizunean aisiagatikoa turistak erakartzeko aukera paregabea izango du

Euskadik (betiere bi modalitate horiek uztartuta egonaldiak luzatzeko aukera baztertu gabe; ziur aski, aukera hori gutxiengo batek besterik ez du izango). Bestalde, erakartzeko faktoreak errazago kudea daitezke: ekitaldi handiak antolatzea (musikari, arteari, kirolari, erlijioari eta abarri loturikoak) lagungarria da hiriaren eta haren ingurunearen erakargarria berritzeko.

- Alderdi *negatiboen* artean, honako hau aipa daiteke, ezbairik gabe: *beste hiri batzuen lehia gero eta handiagoa da*; izan ere, kultura- eta hiri-turismoaren eremuan sartzen ari dira, erakartzeko elementuetan inbertsio handiak eginez (adib: Zaragoza 2008). Beraz, erne egon behar da beti lehiakortasun-aldeari eusteko.
- PIPE 200-2004 planak eraginpean hartutako aldi lorturiko hazkuntza-tasa handiek ez dute ezkutatu behar beste hainbat eremutan emaitzak oso urriak izan direla, ezarritako helburuak kontuan hartuta; emaitza eskas horien arrazoiak honako hauek izan daitezke: ekimenik eza, edo abian jarritako neurri eta jardunak sendotzeko behar adinako denbora-tarterik igaro ez izana. Horregatik, beharrezkoa izango da hurrengo urteetan ere eremu horiek jorratzea:
  - *Lanbide-arloko prestakuntza eta gaikuntza*; arlo hori sektorearen lehiakortasunerako izugarri garrantzitsua den arren, hutsuneak daudela onartu dute sektoreko agenteek, eta, haien arabera, beharrezkoa da sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren instantziak gehitzea.
  - *Informazioaren eta komunikazioaren teknologien* ezarpen efektiboan sakontzea; prozesu horren mugarrietako bat erreserba-zentralak hedatzea izango da (informazio-fasea gaintzea eta transakzioetarako aukera ematen duen faseari ekitea). Nork bere bidaiak antolatzeko eta azken orduko eskaintzak aprobetxatzeko joerak kontuan hartuta, teknologia horiek gero eta tresna garrantzitsuagoak izango dira.
  - Beste hobekuntza batzuen artean, *Itourbask turismo-bulegoen euskal sarea* operatibo bihurtzeko lana ere egin da aldi horretan, baina lan horrek oraindik ere ez du emaitza nabarmenik izan. Sare hori sendotu nahi da, gure helmugaren berri izateko prozesua erraztu eta lurraldearen gainerako lekuetara hedatuko delakoan; izan ere, helburu hori ezinbestekoa da egonaldia luzatzeko.
  - *Turismo-lankidetzarako enteen lurralde-sarea* eta tokiko nahiz eskualdeko plangintza-prozesuak finkatzea.
  - Enpresen arteko lankidetzaren sareak eratzea eta *agente guztien (publiko-pribatuak, publiko-publikoak) arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzea*.
- Lehiaketa horretan, Euskadik hainbat faktore ditu bere aurka: *prezioak* altuagoak dira bertan eta azpiegitura ez dago beste helmuga batzuetan bezain bideratua familia-turismoa hartzera; eta, azken batean, turismo mota horrek egiten ditu egonaldirik luzeenak. Izan ere, eguneko turistaren edo txangozaleen tasa (alegia, bertako hoteletan gaua ematen ez duten turistak) oso altua da Euskadin. Turismo horrek oso eragin handia du ekonomiaren aldetik, eta, begi bistakoa denez, muga-lurraldeetan da nagusi, Hondarribian eta Donostian, alegia (Frantziako edo Frantziaren onurak dauden txangozale asko erakartzen dituzte); Bilbori dagokionez, Kantabriatik etorritakoak hartzen ditu. Ez bairik gabe, eta Estatuko gainerako lekuetatik etorritako turismoari dagokionez, gatazka politikoari buruz jasotako irudia hona etortzeko asmoa kentzen duen faktorea izan daiteke.